

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAn ENPLEGUA EGONKORTZEKO HAUTAKETA PROZESU BEREZIEN ETA ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO HAUTAKETA PROZESUEN DEIALDIA ETA OINARRIAK

OINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA.

Donostiako Tranbia Konpainia, SA sozietaterako hainbat lanpostu kontratatzea da deialdi honen helburua. Udal sozietate publiko horren helburua da Donostiako hiri garraio publikoa kudeatzea.

Deialdi honen xede diren lanpostuak enplegua egonkortzeko prozesu berezien eta enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen esparruan daude sartuta, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen arabera.

Hona hemen deitutako hautaketa prozesuen zerrenda, prozesu mota, modalitatea, plazen kopurua, eta bakoitzaren oinarri espezifikoak zehazten dituen eranskina:

Lanpostua	Prozesu mota	Sistema	Sartzeko modalitatea	Plazak guztira	Oinarri espezifikoaren eranskina
Balio anitzeko gidari-kobratzailea	Salbuespenezko egonkortze-prozesua	Lehiaketa	Orokorra	37	1. eranskina
Balio anitzeko gidari-kobratzailea	Egonkortze prozesu berezia	Lehiaketa-Oposizioa	Orokorra	30	2. eranskina
Balio anitzeko mekanikari-elektrikaria	Salbuespenezko egonkortze-prozesua	Lehiaketa	Orokorra	1	3. eranskina
Balio anitzeko mekanikari-elektrikaria	Egonkortze prozesu berezia	Lehiaketa-Oposizioa	Orokorra	3	4. eranskina
Markesinak garbitzailea	Salbuespenezko egonkortze-prozesua	Lehiaketa	Ezgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatua	2	5. eranskina
Erradiadoreak garbitzailea	Salbuespenezko egonkortze-prozesua	Lehiaketa	Orokorra	1	6. eranskina
Garbitzailea-Erregai hornitzailea	Egonkortze prozesu berezia	Lehiaketa-Oposizioa	Orokorra	1	7. eranskina

Deialdia publikoa eta irekia da, eta langileak hautatzeko enpresa batek kudeatuko ditu deitutako hautaketa prozesuak, dokumentu honetan jasotako baldintzei eta berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioei jarraiki, eta deialdiko arau orokorrekin eta dokumentu honetan jasotako hautaketa prozesu bakoitzaren berezitasunekin bat etorriz.

Deitutako hautaketa prozesuen ondoriozko kontratazioak lan kontratu mugagabearen bidez egingo dira eskainitako lanpostu guztietan, Irradiagailuak garbitzekoan izan ezik, hori aldizkako kontratu finkoa izango baita.

Hautaketa prozesu horietan ez da lan poltsarik sortuko.

BIGARRENA. PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK.

Hautaketa prozesuetan parte hartu ahal izango dute ondoko baldintza baztertzaila hauek betetzen dituztenek, kasu bakoitzerako eskabideak aurkezteko ezarritako epea bukatu baino lehen, eta betetzen jarraitu beharko dute kontratua sinatu arte:

- a) Espainian legezko bizilekua eta lan baimena izatea.
- b) 16 urte beteak izatea.
- c) Deitutako lanpostuetako eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- d) Eskatutako titulazioa izatea, edo titulu hori eskuratzeko eskubideak ordainduak izatea, lanpostu bakoitzerako oinarri espezifikoean adierazitako berariazko betekizunen arabera. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen agiria eduki beharko da.
- e) Deitutako lanpostu bakoitzerako eskatzen den beste edozein betekizun espezifiko, bakoitzaren oinarri espezifikoen arabera.
- f) Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasunaren edo bateraezintasunaren legezko kausa ez izatea.

HIRUGARRENA. PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEA.

Hautaketa prozesu bakoitzean onartua izateko eta, hala badagokio, parte hartzeko, honako hauek egin beharko dira:

- 1.- Horretarako prestatuko den eskabide orria bete.
- 2.- Epearen barruan aurkeztu.
- 3.- Dagozkion tasak ordaindu.

Halaber, aurkezteko epea bukatzen denean, eskatutako baldintza guztiak bete beharko dira, bigarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

Parte hartu nahi dutenek eskaera bat aurkeztu beharko dute parte hartu nahi duten hautaketa prozesu bakoitzeko.

Hautaketa prozesu bakoitzerako eskabideak aurkezteko epea noiz irekiko den zortzigarren oinarrian adierazitako jakinarazpen bitartekoan argitaratuko da (www.dbus.eus/es/otros-servicios/seleccion-de-personal/). Nolanahi ere, hautaketa prozesu bakoitzerako eskabideak aurkezteko epeak 2023ko abenduaren 31 baino lehen irekiko dira.

Hautaketa prozesuetan parte hartzeko eskabideak hamar egun balioduneko epean aurkeztuko dira, ireki direla jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Hautaketa prozesu bakoitzerako epea irekitzen den unean zehaztuko den prozeduraren arabera aurkeztuko dira eskabideak, eta bertan zehaztuko da inskripzio tasei buruzko informazioa.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da baldintzak eta merezimenduak betetzeko erreferentzia data.

LAUGARRENA. ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN ZERRENDAA.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, berrikusi egingo dira, lanpostu bakoitzerako eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eta onartutakoan eta bazter utzitakoan behin-behineko zerrendak argitaratuko dira zortzigarren oinarrian adierazitako jakinarazpen bitartekoan.

Zerrenda horietan, hala badagokio, baztertze arrazoia adieraziko da, eta 3 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak egiteko eta eskabideek izan ditzaketen akatsak zuzentzeko, zerrenda horiek argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta haiek ebatzi ondoren, bide beretik argitaratuko dira onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendak.

BOSGARRENA. HAUTAKETA PROZESUAK.

Oinarri orokor hauetan jasotako irizpide eta ezaugarri orokorren eta deitutako lanpostu bakoitzerako oinarri espezifikotan jasotako irizpide eta ezaugarri espezifikoen arabera garatuko dira hautaketa prozesuak, harik eta lanpostu bakoitzerako hautagaien azken kalifikazioen behin betiko zerrendak argitaratu arte.

5.1. Hautaketa batzordearen osaeran inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioak errespetatuko dira.

Hautaketa Batzordeak hautaketa prozesuen gardentasuna eta objektibotasuna zainduko ditu, baita proben konfidentzialtasuna eta deialdiaren oinarriak zorrotz betetzen direla ere. Era berean, hautaketa prozesuak garatzean sortzen diren zalantzak argitzeko ahalmena izango du, bai eta horiek behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartzeko ere, oinarri hauetan xedatutakoaren arabera, eta horietan aurreikusi gabeko kasuei dagokienez hartu behar diren irizpideak ezarriko ditu.

Hautaketa Batzordeak aholkulariak edo enpresa espezializatuak sartu ahal izango ditu bere lanetan, egokitzat hartzen dituen kudeaketak eta probak egiteko, hala nola eskabideak jasotzea, probak diseinatzea, burutzea eta baloratzea.

Hautaketa Batzordeko kide bat ezin bada joan, haren ordekoa izendatuko du zuzendaritzak.

5.2 Interesatuak erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte zortzigarren oinarrian adierazitako jakinarazpen bitartekoen bidez egindako argitalpenen ondoren, 3 egun balioduneko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, horretarako ezarriko den prozedurari jarraituz.

5.3. Prozesu motaren arabera, honako hau izango da hautaketa sistema:

- Egonkortze prozesu bereziak: lehiaketa-oposizioa izango da hautaketa sistema.
- Salbuespenezko egonkortze prozesuak: lehiaketa izango da hautaketa sistema.

5.4. Oposizioa eta/edo lehiaketa faseen ezaugarri orokorrak:

OPOSIZIO FASEA:

Oposizio fasea, hala badagokio, nahitaezkoa izango da, eta ez baztertzailera. Gaitasun profesionala baloratuko da eta proba bat edo batzuk egingo dira horretarako. Proba horiek galdera sortak izango dira eta hainbat erantzun aukera izango dituzte edo proba praktikoak izan daitezke, deitu diren lanpostuen eginkizunekin eta jarduera eremuarekin loturik betiere.

Hautagaiak probak presta ditzaten orientatzeko, lanpostu bakoitzari buruzko informazioa sartu da bakoitzaren oinarri espezifikoenetan.

Azterketa bakoitzerako dei bakarra egingo zaie hautagaiei. Pertsona bat dei egin zaion unean ez bada edozein azterketara joaten, automatikoki galduko du azterketa horretan parte hartzeko eskubidea, eta horrenbestez, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, salbu eta behar bezala justifikatzen bada eta Hautaketa Batzordeak libreki balioesten badu.

Probak egiteko behar diren egokitzapenak egingo zaizkie dibertsitate funtzionala duten pertsonen, egokitzapen berezirik behar badute, gainerako parte hartzaileek duten aukera berdintasuna izan dezaten, betiere horrekin probaren edukia desitxuratzen ez bada eta eskatutako gaitasun maila murrizten edo kaltetzen ez bada.

LEHIAKETA FASEA:

Lehiaketa fasean hautagaiak alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Nolanahi ere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da alegatzen diren merezimenduen erreferentzia data. Horretarako, behar bezala egiaztatu beharko dira, horretarako ezarri den epean eta ezarri den alegazio eta egiaztatze prozedurari jarraituz.

Baloratzekoak diren merezimenduak eta baremoa hautaketa prozesu bakoitzaren oinarri espezifikoean zehaztu dira, eta bakoitzari dagozkion puntuak emanez egingo da balorazioa, kasu bakoitzerako ezarritako baremoaren arabera.

Lehiaketa ez da baztertzaileria izango.

SEIGARRENA. AZKEN KALIFIKAZIOA ETA BEHIN BETIKO SAILKAPENA.

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa oposizio fasean edo/eta lehiaketa fasean lortutako puntuazioen batura izango da, prozesuaren tipologiaren arabera.

Behin betiko sailkapenaren zerrendan, hautagai bakoitzaren lehentasun ordena adieraziko da, lortutako puntuazioaren arabera, eta, hala badagokio, berdinketa hausteko irizpide hauek bata bestearen atzetik aplikatuta:

- Erakundean, deitutako lanpostuan, lehenago hasitako hautagaiaren alde (antzinatasuna lanpostuan).
- Erakundean, deitutako lanpostuan, lan poltsan puntuazio handiena lortu duenaren alde.
- Erakundean, deitutako lanpostuan, zerbitzu denbora gehien eman duenaren alde, egunetan zenbatuta. Ez da kontuan hartuko puntuazio muga, eta egunka zenbatuko da.
- Deitutako lanpostuan ordezkari txikiena duen generoaren alde.
- Zozketa publikoa.

ZAZPIGARRENA. SOZIJATEAN LANEAN HASTEAK.

Hautaketa prozesu bakoitzean aukeratutako hautagaiak sozietatean sartuko dira ezarritako epeetan, lan kontratu mugagabea formalizatuta eskaintako lanpostu guztietan, irradigailuen garbiketan izan ezik, azken hori aldizkako kontratu finkoa izango baita, eta haren araudiaren arabera arautuko baita.

Lanpostu bereko zuzkidura bat baino gehiago eskaintzen badira, Zuzendaritzak-Gerentziak esleituko ditu, behin betiko sailkapenaren ordena errespetatuz.

Era berean, aukeratutakoen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, pertsona horiek eskatzen zaizkien dokumentuak aurkeztu beharko dituzte horretarako jarri den epearen barruan. Hautaketa prozesuan zehar modu frogagarrian egiaztatu ez den dokumentazioa edo hautaketa prozesuan zehar mantendu behar diren eskatzaileen baldintza pertsonalei buruzkoa aurkeztu beharko da soilik, hala nola, ezintasunik edo bateraezintasunik ez egotea.

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, dokumentazioa aurkezten ez dutenek, edo dokumentazioa aztertuta ikusten bada eskatutako baldintzetako bat ez dutela betetzen, edo dagozkien lanak egiteko eskatzen den gaitasuna ez dutela betetzen, ezin izango dira lan kontratuko langile finko edo aldiakako langile finko izan, kasuan-kasuan dagokionaren arabera, eta haien jarduera guztiak baliogabetuta geldituko dira, eskabidea faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

ZORTZIGARRENA. ARGITALPENAK.

Hautaketa prozesuen deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta deialdia egin duen erakundearen www.dbus.eus/es/otros-servicios/seleccion-de-personal/ helbide elektronikora bidaliko da.

Hautaketa prozesuetan zehar, prozesuen alderdi desberdinei buruzko informazio guztia helbide elektroniko honetan argitaratuko da: www.dbus.eus/es/otros-servicios/seleccion-de-personal/, jakinarazpen ondorioetarako, hautaketa prozesu bakoitzerako eskabideak aurkezteko epea irekitzea barne.

BEDERATZIGARRENA. DATUEN TRATAMENDUA.

Hautagaiak beren eskabideetan emandako datu pertsonalak eta oinarri hauetan araututako prozesuan Donostiako Tranbia Konpainia, SAUri ematen dizkietenak erakunde horrek tratatuko ditu tratamenduaren arduradun gisa, prozesu horretan euren parte hartzea kudeatzeko.

Datu pertsonalen tratamendua interesdunak bere eskaera aurkeztean adierazitako kontratu aurreko neurriak hartzeko eskaeran oinarritzen da.

Datuak babesteari buruzko araudian ezarritakoa betetzeko, Donostiako Tranbia Konpainia, SAUK Datuak Babesteko ordezkari bat (DBO) du izendatuta. Ordezkari hori arduratzen da erakundearen pribatutasunaren kudeaketaz eta kontrolaz, eta hautagaiak harekin harremanetan jar daitezke helbide elektroniko honen bidez: dpo@dbus.eus

Donostiako Tranbia Konpainia SAUK hautagaien datu pertsonalak gordeko ditu hautaketa prozesua behar bezala gauzatzeko behar-beharrezkoa den denboran, eta, hala badagokio, eta, beharrezkoa denean, erakundeak bere legezko betebeharrak betetzeko bete behar dituen kontserbazio epe gehigarrietan ere.

Deialdi honen xede den hautaketa prozesua publizitatearen printzipioak arautzen du, eta, beraz, zortzigarren oinarrian adierazitako bitartekoan argitaratuko dira onartutako eta baztertutako pertsonen zerrendak, bai eta parte hartzaileek lortutako puntuazioak eta azken emaitzak ere, eta NAN zenbakiaren bidez adieraziko da nortasuna.

Oinarri hauetan espresuki aurreikusitako argitalpenez gain, eta legez eska daitekeen kasuetan izan ezik, hautagaien datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko. Datu pertsonalen nazioarteko transferentziak ere ez dira egingo.

Hautagaiak eskubidea izango dute (i) beren datu pertsonaletarako sarbidea eskatzeko, bai eta datu horiek zuzentzeko, ezabatzeko, haien tratamendua mugatzeko, datuok beste norabait eramateko edo, bidezkoa denean, datuon tratamenduari aurka egiteko ere, lop@dbus.es helbidera zuzendutako idatzizko eskaeraren bidez; eta (ii) erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Agentzian edo beste edozein kontrol agintaritza eskudunetan, batez ere beren eskubideak erabiltzean gogobetarik gelditu ez direnean.

Donostian, 2022ko abenduaren 29an

Igor González Aranburu
Zuzendari Gerentea